



# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

4.zk 2010 5€

FUNDICIÓN, ARTE Y TECNOLOGÍA

BERTSOLARIAK 1950 – 1960

CRUZ DE KURUTZIAGA

GAZTETXEA



# BARRUKO IBILBIDEAK

**ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA**

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.


Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.







Urkiolako gurutzeen ingurua Suitzaren antzeko parajea da guretzat.  
Hortxe egiten dut topo nire buruarekin.


Gozatu ez ezik, orainaz eta etorkizunaz hausnartu ere egiten dut.  
Hortxe hartzen ditut bizitzeko behar ditudan indarrak.

Eta gurutzeetatik Museora joaten naiz,  
nire bizitzako proiektuaren inguruan ideiak gauzatzera.

Urkiolako gurutzeak eta Museoa. Niretzat ez dago terapia hoberik.

**ENRIKE HUERTA** *DURANGO*






Murgoitioko inguru honek nere gazte sasoia gogoratzen deustie. Bertan, hainbat erromeriatan izugarri gozatu dot, eta leku honetan aurkeztu zan sortu barritan Ireminie dantza taldea; hasieran mutilak bakarrik eta urte batzuk beranduago nesken talde be bai. Izan be, dantzan egitea da gogokoen dodan gauzetako bat eta pena guztiak kentzeko nire erremedioa.


ROSA OSTOGAIN BERRIZ






Harrizko zelai honetatik pasatzen naizen bakoitzean, baloiari lehenengoz jo nizkion ostikadak etortzen zaizkit gogora. Zenbat ordu eman ote ditugu bertan jolasean? Eskolako lagunekin batera ibiltzen nintzen hemen, jolastoki orduan batez ere. Gero, izerdiz blai, berriz ere arkatx eta koaderno artera bueltatzen ginen. Zer egin ez genekien arratsaldeetan ere, futbol-eremua beti egoten zen jokorako prest. Beste zereginik ez geneukanean hementxe ibiltzen ginen, lagunok beti egoten ginelako futboleko ekiteko gogoz. Ordutik hona urteak joan dira. Nahiz eta denbora luze horretan gauza asko aldatu, Matienako zelaiaren bi ateak orduan bezala daude, berdin-berdin. Bi zaindari horiek gordetzen dituzte nire txikitako futbol-oroimenak.









Barruko ibilbide bat hautatzeko eskatu zidatenean berehala nire haurtzaroko hainbat pasarte burura etorri zitzaizkidan. Orduan konturatu nintzen zenbat olgeta egiten genuen baserri inguruko txoko horietan eta, era berean, ze aldaketa eman den ordutik hona. Txokoek berdin jarraitzen dute, baina orain auzoko umeek ez dute bertan jolasten, orduko olgetak eta barre algarak nire oroimenean ondo gordeta geratuko dira eta beharbada, hemendik urte batzuetara nire auzoko umeren bati txoko bat aukeratzeko esaten diotenean auzoko gunee bat aukeratuko du, eta orduan ohartuko naiz naturak txikitan duen xarma beti egongo dela hor.

**MERTXE MUJKA** ELORRIO





Zenbat ostera Trabakutik Oizera!

Anbotoko Mariri baino gehiago kostatzen jatan... Hori seguru.

Halan da be merezi izan dau. Hamaika izerdi eta putz hotz!

Baina zenbat eta gehiagotan igo eta sufritu,

orduan eta ziurrago ikusten neban harrijasotzearen gailurra.

Harriak eta Oizek pisu handia hartu dabe nire bizitzan.

**JOSE ANTONIO GISASOLA 'ZELAI'** *MALLABIA*